

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2013ko AZAROAREN 7an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2013ko azaroaren 7an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Imanol Aranzabal Lasa
Jon Tejeria Otermin
Karlos Irazu Muñoa


Bere ezin etorria azaltzen du: Aritz Usandizaga Larrañaga eta Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala bada gorkio:**
 - **2013ko urriaren 3an egindako ohiko bilkura**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Olatza baserriaren ondoan eginiko ezkutuko obren legeztapen baimena, hala bada.**
- 4. Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraulgo herrien artean erosi zen eszenatoki mugikorraren erabilpena kudeatzeko hitzarmenaren onespena, hala bada.**
- 5. 2013 urteko jaietako gastuen kitapenaren berri ematea, hala bada.**
- 6. Larraulgo Udalaren eta Itten, herriekin lan egiten saren arteko lankidetzarako hitzarmen markoaren onespena, hala bada.**
- 7. Espetxe-zigorak Larraulgo Udalaren alde lan eginez ordezkatzeko erregelamenduaren hasierako onespena, hala bada.**
- 8. 2014 ekitaldirako Udal Ordenantza Fiskalak eta Udal zerbitzuak eskaintzeagatik Tasa eta Prezio Publikoen Ordenantzak onartzea, hala bada.**
- 9. Udaletako zerbitzu publikoen kudeaketari dagozkion jardueratan enplegua bultzatzeko programaren babesean, herri langile bat kontratatzeako onespena, hala bada.**
- 10. Fakturak eta ordainketak.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

11. Beste batzuk.

12. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- 2013 urteko urriaren 3ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

18 bis/2013 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 8koa, 2013ko 1. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

32/2013 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 4lpa, O.U. andreari kultur etxeko balioanitza gela erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

33/2013 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 5koa, 2013ko 2. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.


HIRUGARREN PUNTUA

OLATZA BASERRIAREN ONDOAN EGINIKO EZKUTUKO OBREN LEGEZTAPEN BAIMENA, HALA BADA

Ikusirik 2013ko uztailaren 4an egindako udalbatzarrean erabaki zela Olatza baserrian lizentziarik gabe egindako lanak gelditzea, eta hauen legeztapena eskatzea.

Ikusirik aipaturiko ezkutuko obrak legeztatzeko 2013ko irailaren 12an I.S. jaunak dokumentazioa aurkeztu zuela Udaletxe honetan. Udal teknikariak dokumentazioa aztertu ondoren ez zela nahikoa adierazi zuen. Ondoren, honen berri titularrari eman zitzaion eta 2013ko urriaren 31an dokumentazio gehigarria aurkeztu du Udaletxe honetan.

Ikusirik Udal Aholkulari teknikoak 2013ko azaroaren 4an eginiko txostenean dioena:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**“LARRAULGO OLATZA BASERRIKO LURRETAN EGIN DIREN LANAK
LEGEZTATZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

I.S.K. jaunak, Larraulgo Olatza baserriaren lurretan dagoen pabiloian eta bere inguruetan egin diren lanak legeztatzeke, 2013ko irailaren 12-an, egindako lanen 2 argazki eta idatzi deskribatzaile bat ekarri zuen. Aurkeztutakoa nahikoa ez zela ikusirik, dokumentazio gehigarria eskatu zitzaion, urriaren 31-ean batazbesteko aurrekontu eta bi marrazki erantsiz. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Jadanik egindako bi lan deskribatzen dira aurkeztutako idatzietan:

-Itotiak zirela eta, pabiloiaren 8 tejabana aldatu ziren, jarritako berriak, argitasuna irabazteko, transluzidoak izanez. Lan hauen kostua 200€ izan da.

-Pabiloiatik 15m-tara dagoen fosaren gainean, 7,5m²ko adreiluzko eraikin osagarri bat egin da, eraikinaren gehieneko altura 2m izanik. Teilatua egurrez eta txapaz egiteko asmoa azaltzen da, eta pareten kanpo itxura zarpiatua. Lan hauen aurrekontua 210€ direla baietsi dute. Eraikin hau banaketako kajak gortzeko eta txakurrak egoteko erabili nahi da.

Lan guzien aurrekontua bera, 410€ da.

Olatza pabiloia, Larraulgo lur ez hiritargarriaren D20 produkzio zonaldearen barruan kokaturik dago, bereziki 1 poligonoko 348 lursailean.

Agrarian altan emanda dagoela ziurtatzen du I.S. jaunak.

Hau honela izanik, hirigintza-erregimen hiritargarriezina erabiliko da, bereziki 48° eta 69°artikuluak.

Articulo 48.-Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

-Con caracter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.


-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.

-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.

-Las intervenciones de nueva edificación conllevarán la adecuación ambiental de las edificaciones ubicadas en la misma parcela y propiedad.

Articulo 69.-Instalaciones y edificios complementarios a la explotación agraria.

1.-Se consideran entre ellas todas las construcciones de carácter fijo y estable destinadas directamente a usos de explotación agraria o a usos complementarios y



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

auxiliaren de los mismos-cuadras, establos, pajares, silos, edificaciones para la guarda de maquinaria agrícola, etc.- con excepción de los usos residenciales.

2.-Tales construcciones se realizarán preferentemente adosadas al edificio del caserío y con empleo de materiales y soluciones arquitectónicas que armonicen con el mismo.

3.-En el supuesto de que por circunstancias topográficas, funcionales, higiénicas, por necesidad de preservar la imagen singular o de especial significación histórico-artístico de la casa principal o por otras causas justificadas no fuera posible adosar las construcciones complementarias, éstas se dispondrán en el emplazamiento que el Ayuntamiento, y tras ponderar las propuestas presentadas por el interesado juzgue más idóneo.

En este último caso las nuevas edificaciones deberán cumplimentar las condiciones siguientes: 8 m al límite de la parcela y 50 a edificaciones no rurales existentes en otras fincas.

La ocupación máxima será de 1.500m² en los casos de cooperativas y agrupaciones de más de un ganadero. En caso de una única persona la ocupación máxima será de 1.000 m² en planta.

4.-Dentro de la unidad de explotación agraria se permite la implantación de granjas y explotaciones ganaderas intensivas aisladas que cumplan las condiciones establecidas en el artículo 70 en lo referente a dimensiones, y separaciones de otras construcciones, así como viveros e invernaderos según lo estipulado en el artículo 71.

5.- Se autorizará la localización de depósitos de gas para el abastecimiento del caserío, debiendo disponerse éstos de forma enterrada y cumplimentando la normativa vigente al respecto...

Pabiloiaren teilatuan jarritako xaflak teila kolorezkoak izan beharrea trasluzidoak dira. Sinatzen duen arkitektoak, ingurunearekin bat egin dezakeela pentsatzen du. Aurrezpen energetiko aldetik onuragarria izan daiteke ere.


Egindako eraikin osagarria ez dago eraikin nagusiari itsatsia baizik eta pabiloitik 15mtara dagoen fosaren gainean. Hau honela izanik, eta udal taldeak kokapena onartuko balu, araudiak markatzen dituen distantziak gordetzen ditu.

Eraikinaren bukaera argia izango da.

Beraz, idatzietan azaltzen diren lanak Larraulgo araudiarekin bat datozenez, legeztagarriak direla informatzen dut.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

Eraikin osagarriaren baimena prekarioan izango da.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Pabiloian eta lursailean egiten den jarduerari dagokionez, eta Ingurumenaren lege berriaren arabera (Ley 3/1998, Protección Medio Ambiente País Vasco modificada por L 7/2012) jarduera sailkatu baten aurrean aurkitzen gara.

Jarduerarekin hasteko komunikazio bat aurkeztu beharko da udaletxean dagokion jarduera proiektuarekin, erantzule bakarrak jardueraren titularra eta egiaztagiria eman duen teknikaria izanik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- I.S. jaunak eskatu duen Olatza baserriaren ondoan eginiko ezkutuko obren legeztapena onestea.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesatuari ematea.

LAUGARREN PUNTUA

ADUNA, ALKIZA, ASTEASU ETA LARRAULGO HERRIEN ARTEAN EROSI ZEN ESZENATOKI MUGIKORRAREN ERABILPENA KUDEATZEKO HITZARMENAREN ONESPENA, HALA BADA.

Ikusirik 2002 urtean Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraulgo herrien artean eszenatoki mugikor bat erosi zela, honen erabilpenerako hitzarmen bat onestu eta sinatu zelarik.

Ikusirik aipaturiko hitzarmenaren puntu batzuk aldatu behar izan direla ez direlako aplikatzen, hitzarmenaren berrikuntza deritzon dokumentu bat prestatu delarik.


Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraulgo herrien artean erosi zen eszenatoki mugikorraren erabilpena kudeatzeko hitzarmenaren berrikuntzaren onespena.

BIGARRENA.- Alkate-Lehendakari jauna ahalmentzea, aipaturiko hitzarmena sina dezan.

BOSTGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2013 URTEKO JAIETAKO GASTUEN KITAPENAREN BERRI EMATEA, HALA BADA.

Ikusirik San Juan, San Esteban eta San Bartolome jaiak pasa direla, Alkateak jai hauetan egon diren gastuen berri ematen du. Jai guzti hauen kitapena ondorengo izan delarik:

ORDAINKETAK 2013

Kontzeptu ezberdinak


| | |
|---------------------------|-----------------------|
| Argi engantxeak | 641,47 |
| Kartelak | 380,00 |
| Herri Ostatua | 40,80 |
| Eszenarioa Irura | 150,00 |
| Eszenarioa Irura garraioa | 95,00 |
| Eszenarioa | 60,00 |
| Elkarte gastu ezberdinak | 19,87 |
| Platanoak | 8,82 |
| Etxeferoak | 82,99 |
| Maskuriak | 15,91 |
| Bonbilak | 4,50 |
| | <u>1499,36</u> |

San Joan Afaria

| | |
|------------------|----------------------|
| -Haragitegia | 200,00 |
| -Ogia | 30,00 |
| -Tomatea | 17,50 |
| -Kroketak | 11,00 |
| -Erosketak | 75,50 |
| -Postrea | 100,00 |
| -Helatuak | 19,25 |
| -Helatuak Ostatu | 8,00 |
| -Elkartea | 254,14 |
| | <u>715,39</u> |

Kultur taldeak

| | |
|---------------------|--------|
| -Gorriti | 500,00 |
| -Ekipo teknikoa | 300,00 |
| -La jodedera | 550,00 |
| -Ingo al deu | 500,00 |
| -DJ Txoko | 400,00 |
| -Laja eta Larrañaga | 500,00 |
| -Solano bokatak | 66,40 |
| -Ezten giro | 600,00 |



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

| | |
|---------------|-----------------------|
| -Bertsolariak | 800,00 |
| -Pilotariak | 400,00 |
| -Margolaria | 400,00 |
| -Tableroak | 77,05 |
| | <u>5093,45</u> |

Haur ekintzak

| | |
|--|----------------------|
| -Platerak | 4,83 |
| -Janaria | 90,65 |
| -Ogiak | 60,00 |
| -Helatuak | 78,54 |
| -Elkarte gastuak | 68,40 |
| -Goxokiak | 62,80 |
| -Guraso bazkaria (bakoitzak ordaindua) | 99,90 |
| | <u>465,12</u> |

Sagardo probaketa

| | |
|-----------|----------------------|
| -Ogia | 60,00 |
| -Sagardoa | 59,00 |
| -Txorizua | 156,00 |
| -Basoak | 78,41 |
| | <u>353,41</u> |

Plater tiraketa

| | |
|------------|-----------------------|
| -Karpak | 58,50 |
| -Eizmendi | 696,00 |
| -Gazta | 21,00 |
| -Erosketak | 172,80 |
| -Elkartea | 67,90 |
| | <u>1016,20</u> |

Herri kirolak, idi-ahari


| | |
|----------------------|----------------------|
| -Egurak eta aizkorak | 180,00 |
| -Idiak-ahariak | 400,00 |
| | <u>580,00</u> |

Opariak

| | |
|----------------------|----------------------|
| -Trofeoak | 357,60 |
| -Pilotak | 0,00 |
| -Platano joku afaria | 31,20 |
| | <u>463,82</u> |

Batxuri zopa

| | |
|---------------------|-------|
| -Kutxarak eta bolak | 5,82 |
| -Erosketak | 12,70 |



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

-Zopakoak 8,40
26,92

Paella jana

-Makro: Kubiertoak eta platerak 20,34
-Erosketak 26,45
-Haragitegia 71,00
-Arraia 186,77
-Kafea-Azukrea 30,00
-Elkartea 87,89
-Paellera 142,37
564,82

Hamaiketakoa

-Ogia San Esteban 43,75
-Berdurak San Esteban 8,25
-Haragia San Esteban 347,30
-Elkartea San Esteban 450,86
-Ogia San Bartolome 52,95
-Haragia San Bartolome 339,85
-Elkartea San Bartolome 363,11
1606,07

Txozna


-Limoiak 4,35
-Txozna 400,00
-Edaria 1157,06
1561,41

Plazako afaria

-Piparrak 36,00
-Urdaiazpikoa 25,50
-Arraia 193,35
-Elkartea 181,40
-Ogia eta postrea 80,00
516,25

Salmentak

-Gazta 38,30
-Frontoiko boletoak 50,00
-Karretila boletoak 70,00
-Karretila 52,00
-Karretila produktuak 600,00
810,30



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ORDAINKETAK GUZTIRA **15272,52**

DIRU SARRERAK:

| | |
|------------------------------|--------------|
| -Udalaren ekarpena | 7000,00 euro |
| -Propaganda (laguntzaileak) | 840,00 euro |
| -San Joan afaria, 41H,4G,34U | 825,00 euro |
| -Plater tiraketa | 754,00 euro |
| -Frontoiko boletuak | 296,10 euro |
| -Sagardo dastaketa | 321,30 euro |
| -Errifak | 1160,00 euro |
| -Mus Txapelketa | 220,00 euro |
| -Txozna | 1947,28 euro |
| -Plazako afaria | 460,00 euro |
| -Guraso bazkaria | 159,00 euro |
| -Paella bazkaria, 56H,34U | 438,00 euro |

GUZTIRA: **14420,68 euro**

ORDAINKETAK GUZTIRA: **15272,52 euro**

BALANTZEA: **-851,84 euro**

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2013. urtean San Joan, San Esteban eta San Bartolome jaietan egindako gastuen likidazioa onestu, **15.272,52 euro**tako gastua izan delarik.

SEIGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALAREN ETA ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN S.A.-REN ARTEKO LANKIDETZARAKO HITZARMEN MARKOAREN ONESPENA, HALA BADA.

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiak, Itten S.A.-ren laguntza, eskaini nahi diela Udaletxe txikiei, laguntza tekniko, juridiko eta administratiboa dohain emanaz. Horretarako hitzarmen marko bat prestatu da, erabaki honi atxikitzen zaiona.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Larraulgo Udala interesatuta agertzen dela, Itten S.A.-k eskeiniko dion laguntza administratibo, tekniko eta juridikoarekin.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalaren eta ITTEN, Herriekin lan egiten S.A.-ren arteko lankidetzarako hitzarmen markoaren onespena.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakari jauna ahalmentu Larraulgo Udalaren izenean Itten S.A. –rekin onestutako lankidetzara hitzarmen markoa sinatzeko.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ITTEN S.A.-ri ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

ESPETXE-ZIGORRAK LARRAULGO UDALAREN ALDE LAN EGINEZ ORDEZKATZEKO ERREGELAMENDUAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA.

Ikusirik Espetxe-zigorrak Larraulgo Udalaren alde lan eginez ordezkatzeko erregelamendua prestatu dela. Ondorengoa izanik:

“LARRAULGO UDALA

ESPETXE-ZIGORRAK LARRAULGO UDALAREN ALDE LAN EGINEZ ORDEZKATZEKO ERREGELAMENDUA

Lehena. Xedea


Araudi honen xedea, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten lau herrietan (Aduna, Alkiza, Larraul eta Zizurkil) bizi diren pertsonen gizartearen mesederako lan egiteko aukera izatea, epaiak ezarritako kartzela zigorraren orde.

Bigarrena. Baldintzak

Espetxe- zigorrak herriaren aldeko lan egiteko zigorretan bete daitezzen, eskatzaileak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten lau herrietakoren batean erroldatuta egotea. Larraulgo herrian burutu beharreko lanak nork egin erabakitzerakoan, bertan erroldatuta daudenek lehentasuna izango dute.*

Hirugarrena. Egingo diren lanak



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Espetxe- zigorrak Larraulgo herriaren alde egindako lanen bidez betetzeko, lan horiek momentu bakoitzean Udalak dituen beharren arabera definituko dira. Horregatik, eskaera egiten den momentuan Udalak zerbitzu honi eskaintzeko lanik ez badu, eskaera ez onartzeko aukera izango du.

Laugarrena. Lansaioaren ezaugarriak

Lan jardunak 2 orduko iraupena izango du gutxienez eta 8 gehienez, jardunaldi jarraian edo etenean.

Dena den, eskatzaileak planteatuko lan jarduna edota ordutegia eta Udalaren interesak bat ez badatoz, azken hauek izango dute lehentasuna eta, horrenbestez, Udalak eskaera ez onartzeko aukera izango du.

Bosgarrena.

Zigortuak egingo duen lanak ez du lan harremanik eta ordaintzeko eskubiderik sortuko.

Seigarrena.

Eskatzaileari Larraulgo Udalean zigorrak betetzeak garraio edota mantenu gastuak sortuko balizkio, bere kontura izango lirateke.

Kalte- ordainei dagokienean, Udal langileei aplikatzen zaien Araudia aplikatuko zaie eta betiere Udalak aurrez onartutako gastuak eragiten dizkionean Udalean egindako lanak.


Zazpigarrena. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

Gizartearentzat lan egiteko zigortuak izan direnen Gizarte Segurantzaren babesari dagokionez, uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuaren 22. artikuluan ezartzen den Gizarte Segurantzaren babes-ekintzaren pean egongo dira, baina laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen ondorioetarako bakarrik.

Zigortuaren gizarte segurantzarekiko betebeharrak Barne Ministerioari eta INSS- ari dagozkie.

Zortzigarrena. Prozedura

Espetxe-zigorra Larraulgo Herriaren aldeko lanarekin ordezkatu nahi duenak eskaera idatziz egin beharko du horretarako Udaletxean finkatutako ereduan.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Eskaera-orria, behar bezala eta dagokion agiriekin, Larraulgo Udaletxeko gizarte zerbitzuetan, aurkeztuko da. Lanak eskaintzeko garaian, eskaera-orriaren sarrera-data hartuko da kontuan.

Prozedura ondorengo izango da:

- Eskatzaileari elkarrizketa egingo zaio Gizarte Zerbitzuetan.*
- Pertsonaren profilaren eta libre dauden plazen arabera, lan egutegia eta ordutegia ezarriko dira.*
- Bere lanaren jarraipena egiteko arduraduna jarriko zaio eta arduradun honek asistentzia orria bete beharko du.*
- Lan plana sinatuko dute zigorra bete behar duen pertsonak, Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta zigortuari jarraipena egin behar dion pertsonak.*

Eskaria aztertu eta baloratu ostean, Larraulgo Udaletxeko Udaltzara bideratuko da, honek erabaki dezan.

Eskaera ez onartzeko arrazoietakoa bat izan daiteke momentu horretan tokirik edo lan jakirik ez izatea pertsona horrentzat edo ezin erantzun ahal izatea Udalak dituen baliabide pertsonal edo materialekin.

Bederatzigarrena. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaera-orriarekin batera honako agiriak aurkeztu beharko dira:

- Eskatzailearen identifikazio-txartela (NAN, Atzerritarren Identifikazio-zenbakia edo pasaporte).*
- Espetxe-zigorra ezartzen duen sententziaren kopia bat (zein deliturengatik zigortua izan den azaldu beharko du).*
- Eskatutako lanak ezin dituela bete adierazten badu, hau mediku ziurtagiri bidez egiaztatu beharko da.*

Hamargarrena. Lanean hastea


Behin Udaltzaren ebazpena jasotakoan, eskatzaileak honen kopia bat espetxe-zuzendaritzara eramango du onartu diezaion kartzela-zigorra herriaren aldeko lanekin ordezkatzeko.

Lanean hasteko, epailearen onarpena aurkeztu beharko du Larraulgo Udaletxean.

Hamaikagarrena

Egin beharreko lanen garapenari dagokionez, zigortuak bere arduradunak ematen dizkion jarraibideak jarraitu beharko ditu.

Hamabigarrena



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Larraulgo Udaletxean egindako lanean izandako gorabeherak Espetxeko Kanpoko Gizarte Zerbitzuari jakinaraziko dizkio idatzizko txosten baten bidez. Gorabehera horiek honako hauek izan daitezke:

- *Arrazoirik gabe lanera ez etortzea edo lanpostua uztea.*
- *Eska daitekeen gutxieneko errendimendua baino errendimendu nabarmen txikiagoa izatea.*
- *Lanpostuaren arduradunak emandako jarraibideak ez betetzea edo horien aurka egitea, behin eta berriz eta nabarmen.*
- *Zigortuaren jarrera dela eta, arduradunak zigortua lanean ez mantentzea eskatzen duen txostena egin eta Udalak onartzea.*
- *Larraulgo Udalari egoki deritzon beste gorabeheraren bat.*

Hamahirugarrena. Lanaldia bertan behera uztea.

Larraulgo Udaletxeari eskainitako laguntza moztu ahal izango du zigortuak lanaldian izandako gorabeheren ondorioz.

Larraulgo Udalak idatzizko txosten bat bidaliko dio Espetxeko kanpoko Gizarte Zerbitzuari, laguntza mozteko arrazoiak azalduz, eta horrekin laguntza/lanaldia amaitu dela ulertuko da.

Hamalagarrena. Txostena

Egin beharreko lanaldia amaitutakoan, Larraulgo Udalak idatzizko ziurtagiri bat emango dio eskatzaileari honako informazioa azalduz:


- *Zein lan egin duen*
- *Noiz hasi eta bukatu duen lanaldia*
- *Lanerako izan duen jarrera eta beste alde batzuk azalduz.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Espetxe-zigorrak Larraulgo udalaren alde lan eginez ordezkatzeko erregelamenduari hasierako onarpena ematea.

BIGARRENA: Hartutako akordioa jendaurrean jartzen da, dagokion iragarkia Udaletxeko iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, Toki araubideko oinarri legearen 49. Artikuluari jarraiki, hasierako erabaki honen inguruan 30 laneguneko jendaurreko informazio epean erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izango dira.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ZORTZIGARREN PUNTUA

2014 EKITALDIRAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIK TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA, HALA BADA.

Ikusirik 2014. urterako udal ordenantza fiskalak aztertzeko unea dela.

Ikusirik 2013 urteko azaroaren 4an Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak igorritako txostena, non jasotzen den ordenantza fiskalak sortu, aldatu eta ezabatzeko jarraitu beharreko prozedimendua, batetik, eta bestetik, 2013ko ekitaldian Udala aplikatzen datorren zerga eta tasak.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, ahobatez,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2014 urterako zergak arautzen dituzten ordenantza fiskalari dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:

1.1.Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Ordenantzaren eranskina mantentzea erabaki da.

Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,30.

Gainerako hiri ondasun higiezinari aplikagarri zaion karga tasa: %0,25.


Landalurren Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,60.

Dauden hobarien artean “Eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak” hobaria, % 25a izango da.

“Famili ugariari” dagokion hobariari buruz 3 ume edo gehiago duten familiei % 50eko hobaria eta “eguzki aprobetxamendu termiko sistemak” izateagatik % 25eko hobaria aplikatuko zaiela mantentzen da.

1.2.Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordain-arazpenerako zenbait ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskala.

Zerga honen kuotak zehazteko finkatutako gutxienezko kuoten gehikuntza-koefizientea % 2,2 finkatzen da. Mantentzea proposatzen da.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1.3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.

Zerga honen koefizientea % 1,69-ra igotzea proposatzen da.

Ibilgailu historikoei % 50eko hobaria aplikatzen jarraitzea onesten da.

Ibilgailu mota eta potentzia Koefizient. Euroak

A) Turismoak:

| | |
|---|--------|
| 9 zaldi fiskal bitartekoak % 1,67..... | 31,08 |
| 9 - 11,99 zaldi f. bitartekoak % 1,67..... | 62,16 |
| 12 - 13,99 zaldi f. bitartekoak % 1,67..... | 103,60 |
| 14 - 15,99 zaldi f. bitartekoak % 1,67..... | 145,03 |
| 16 - 19,99 zaldi f. bitartekoak % 1,67..... | 186,47 |
| 20 zaldi fiskaletik gorakoak % 1,67..... | 227,91 |

B) Autobusak:

| | |
|---------------------------------------|--------|
| 21 plaza bitartekoak % 1,67..... | 140,77 |
| 21 - 50 plaza bitartekoak % 1,67..... | 200,50 |
| 50 plazatik gorakoak % 1,67..... | 250,63 |

C) Kamioiak:

| | |
|--|--------|
| 1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria % 1,67..... | 71,45 |
| 1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e. % 1,67..... | 140,77 |
| 2.999 - 9.999 kg. bitarteko k.e. % 1,67..... | 200,50 |
| 9.999 kg-tik gorako k.e. % 1,67..... | 250,63 |

D) Traktoreak:


| | |
|--|--------|
| 16 zaldi fiskal bitartekoak % 1,67..... | 29,86 |
| 16 - 25 zaldi f. bitartekoak % 1,67..... | 46,93 |
| 25 zaldi fiskaletik gorakoak % 1,67..... | 140,77 |

E) Trakzio mekanikoko ibilgai-luen atoi eta erdi-atoiak:

| | |
|--|--------|
| 750-1000 kg. bitarteko karga erabil-garria % 1,67..... | 29,86 |
| 1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e. % 1,67..... | 46,93 |
| 2.999 kg.tik gorako karga e. % 1,67..... | 140,77 |

F) Gainerako ibilgailuak:

| | |
|---|-------|
| Ziklomotoreak % 1,67..... | 7,62 |
| Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak % 1,67..... | 7,62 |
| Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartek. % 1,67..... | 13,05 |
| Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartek % 1,67..... | 26,11 |



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartek. %1,67.....52,22
Motozikletak 1.000 cctik gora %1,67.....104,42

1.4. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

Mantendu egiten dira kuotak.

| | |
|--|-------|
| Baserrien berrikuntza | %2,5 |
| Besteak: | |
| a) 60.000,00 euro arteko aurrekontua dutenak: | %4,50 |
| b) 60.000,01 euro baino gehiagoko aurrekontua: | %5,00 |

HOBARIAK:

- % 50 eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrek ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean.

Hobari hau aplikatzeko, baldintza hauek beteko dira:

- Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.
- Mugikortasun baremoan, gutxienez, 7 puntu izatea.
- Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarra eraikina ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.
- Obrek eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobari eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizita aurkeztea helburu hori duten obren zatian.

1.5. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.


Karga tasa: % 6,29-an mantentzea proposatzen da.

BIGARRENA.- Tasak arautzen dituzten ordenantzei dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:

2.1. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.

2.1.1. Ur horniketa.

Tasa honetan ondorengo proposamenak egiten dira.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1. Ur horniketa

Euroak

1.1. Ur Kontsumoa

1.1.1. Etxez-etxeko ur hornidura

30m³. bitartekoa, hiru hilabetez 15,00 € Mantendu

31m³tik goragokoa, hiru hilabetez 0,64 €/m³ bakoitza mantentzea proposatzen da.

1.2. Azpiegitura kanona

Guztientzat, hiruhilabeteko 10,00€-tan mantentzea proposatzen da.

1.3. Kontadoreen alokairuen kanona

Guztientzat, hiruhilabeteko 8,00 € Mantendu

1.4.- Hasierako engantxea etxe berrietan, etxeko 120,00 € Mantendu

1.5.- Hobariak: Gizarte-ongizate batzordeak proposatutakoak: Ikus I. eranskina.

2.1.2.- Zabor bilketa zerbitzua

Euroak

Etxez-etxeko bilketa, hiruhileko 46,00 eurotik 48 eurotara igotzea proposatzen da.

Industria, komertzio eta taberna bilketa, hiruhileko 62,00 eurotik 65 eurotara igotzea proposatzen da.


Hobariak: Gizarte-ongizate batzordeak proposatutakoak: Ikus I. Eranskina.

2.1.3. Dokumentu administratiboen igorpena:

2.1.3.1. Lizentziak, kontzesioak eta hirigintzako baimenak mantentzea proposatzen da:

Mantendu egiten dira.

- Segregazio baimenak 80,00 euro
- Hirigintza kontsultak 80,00 euro.
- Lehen erabilera baimena 105 euro/etxeko.
- Edozein P.E.R.I., Zati Plana, urbanizazio proiektu, xehetasun ikerketa 1.600,00 euro



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2.1.3.2. Iharduera baimenak Euroak

A.1. IGOKA-ri lotuak.....110,00 euro

A.2. IGOKA-ri ez lotuak.....80,00 euro

2.2. Herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkion tasen Ordenantza fiskala

Tarifak mantentzea proposatzen da.

2.2.1. Hileta zerbitzuak:

Mantentzea proposatzen da.

- Hezurtegiaren emakida:
 - Behin-betiko emakida, plaka barne.....195,00€
- Nitxoen emakida:
 - 15 urteko epean, plaka, apala,.....265,00€
 - 5 urte bitarteko luzapenagatik.....125,00€
- Lurperatze tasa: 48,00 euro.

2.2.2.- Kirol instalazioen erabilera: 3 euro/orduko.

2.2.3.- Bestelako prestazioak:

- Mapen salmenta: Handia.....3 euro unitatea.
Txikia.....1 euro unitatea.

HIRUGARRENA.- 2013 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:


1.- HOBARI ESKAERA: 2014 urteko otsailaren 3tik 28rarte.

2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:
2014 urteko apirilaren 1etik ekainaren 2 arte.

3.- URA ETA ZABORREN TASA:

2014 urteko maiatzaren 1etik uztailaren 1 arte.
2014 urteko abuztuaren 1tik urriaren 1 arte.
2014 urteko azaroaren 3tik abenduaren 30
arte.

2015 urteko otsailaren 2tik apirilaren 2rarte.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LAUGARRENA.- Erabakitakoaren berri udal iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz ematea, 30 laneguneko epea irekiz edonork espedientea aztertu eta erreklamazioak edota iradokizunak aurkezteko, bere kasuan. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, hartutako erabakiak behin-betikoz onartutzat emango dira beste erabakirik hartu gabe.

BEDERATZIGARREN PUNTUA


UDALETAKO ZERBITZU PUBLIKOEN KUDEAKETARI DAGOZKION JARDUERATAN ENPLEGUA BULTZATZEKO PROGRAMAREN BABESEAN, HERRI LANGILE BAT KONTRATATZEKO ONESPENA, HALA BADA.

Ikusirik uztailaren 23ko 26/2013 Foru Dekretua, udaletako zerbitzu publikoen kudeaketari dagozkion jardueretan enplegua bultzatzeko programak garatzearren Gipuzkoako udalei laguntzeko programa bati esker, Larraulgo Udalak Herri langile modura jarduteko lan kontratua egin ahal izango duela.

Ikusirik 2013ko irailaren 12an egindako Udalbatzan Gipuzkoako Foru Aldundiak aipaturiko langilea kontratatzeke proposatzen zituen irizpide artean, ondorengoak onartu zituela:

- a) Hautapen data aurreko hamabi hilabeteen barruan langabezia laguntza edo prestazioa amaitu izana. 10 puntu arte.
- b) Azkeneko lan harremana enplegu eskaintzaren data aurreko bi urteetan amaitu izana. 10 puntu arte.
- c) Langabezia laguntzarik edo prestaziorik ez jasotzea. 10 puntu arte.
- d) Diru sarrerak bermatzeko errentaren edo diru sarrerak bermatzeko laguntzaren jasotzailea izatea. 10 puntu arte.
- e) Ardurapean mendekotasuna duten pertsona gehiago edukitzea, eta familia errentako ratio txikiagoa izatea. 10 puntu, honako haztapenarekin:
 - 4 pertsona edo gehiago eta 45.000 euro baino familia errenta baxuagoa: 10 puntu.
 - 3 pertsona eta 35.000 euro baino familia errenta baxuagoa: 8 puntu.
 - 2 pertsona eta 25.000 euro baino familia errenta baxuagoa: 6 puntu.
 - Pertsona bat eta 20.000 euro baino familia errenta baxuagoa: 4 puntu.
 - Besteak: 2 puntu.
- f) Emakumezkoa izatea: 3 puntu.
- h) Hogeita hamabost urte baino gutxiago edo berrogeita bost urte baino gehiago izatea: 5 puntu.
- i) Pertsona desgaitua izatea: 7 puntu.

Ikusirik Lanbide-ri laguntza eskatu zitzaioa, batetik, Larraulgo herrian langabezian zauden pertsonen zerrenda bat bidali zezaten, herri langilearen profila



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

betetzen zutenak, eta bestetik aukeraketa egiteko hautagaiei buruz Udalak behar zuen informazioa helaraztea.

Ikusirik Lanbidek 7 hautagaien izenak eta hauei buruzko informazioa igorri zituela Larraulgo Udalera.

7 hautagaiak ondorengoak dira: J.M.M., A.J.A., M.C.G., F.A., E.J., A.A. eta E.A.

Ikusirik, Udalbatzak herri lanetako pertsona bat kontratatzeko, hautaketarako onarturiko irizpideak kontutan izanik, Taula bat prestatu dela, bertan puntuaketa altuena lortu duen hautagaia J.M.M. jauna izan delarik.

Ikusirik batzarkideen artean adostasun falta dagoela puntuaketa altuena lortu duen hautagaia kontratatzeko.

Irazu zinegotziak azaltzen du ez dagoela ados J.M.M. jauna kontratatzeko, irizpideen interpretazioa beste era batera egiten duelako, bere ustez, subsidioa ezin duenez kobratu 0 puntu eman beharko litzaioke eta ez 10. Berrito, horrela baloraketa eginda ateratzen den hautagaia kontratatzeko bere adostasuna azaltzen duelarik. Interpretazio honekin Tejeria zinegotzia ados azaltzen da, gainera azken hau beti pertsona bera ez hartzearen alde azaltzen da.

Mujika Alkatea, Jauregi eta Aranzabal zinegotziak onarturiko irizpideak kontutan izanda atera den hautagaia kontratatzearen alde azaltzen dira.

Adostasun falta honekin bozketara jotzen da, ondorengoa delarik emaitza: J.M.M. jauna 5 hilabetez herri lanak egiteko kontratatzearen

Aldeko botoak: 3
Kontrako botoak: 2
Abstentzioak: 0


Bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, gehiengoz, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.M.M jauna, jornada osoaz, eta 5 hilabeteko iraupenarekin, herri langile lanak egiteko kontratua egiteko onespena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri J.M.M., A.J.A., M.C.G., F.A., E.J., A.A. eta E.A jaun/andreei ematea.

HAMARGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

| | |
|---------------------------------|----------|
| BERRI LANTEGIA | 147,64 |
| ROTULOS VICENTE | 254,10 |
| MANPEL | 66,42 |
| LASURTEGUI ATXEKI,S.L. | 14,22 |
| FERRETERIA BARBE | 65,46 |
| DISTRIBUCIONES LOPETEGI | 241,01 |
| IZFE | 9,18 |
| IZFE | 2.082,81 |
| ULAHI-ORONA | 572,05 |
| IZENPE | 414,62 |
| QUIMUNSA | 264,33 |
| GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA | 730,84 |
| ALDATZ KRISTALDEGIA | 77,44 |
| ELECTRICIDAD ZIZURKIL | 47,09 |
| LIDOINSA | 707,85 |
| GAS NATURAL FENOSA | 166,38 |
| REPSOL | 8,42 |
| EUSKALTEL | 2,93 |
| EUSKALTEL | 1,33 |
| MOVISTAR | 17,40 |
| MOVISTAR | 132,10 |
| MOVISTAR | 18,66 |
| MOVISTAR | 63,93 |
| MOVISTAR | 82,46 |

Udalbatzarrak **ah**o batez hurrengoa,


ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **6.188,67** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMAİKAGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

11.1. GURASO ELKARTEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA

Alkate-Lehendakariak Guraso Elkartekin izandako bileraren berri ematen du eta bertan Guraso Elkarteak egiten duten eskaeraren berri ematen du.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Guraso Elkarteak Larraulgo Udalari eskatzen dio, haurrak Villabonako igerilekura joaten direnean igeri ikastea, Asteasuko Udalak egiten duen modura, kiroldegiko gastuaren % 50-a Larraulgo Udalak bere gain hartzea. Diru kopurua urtero aldatuz joango da, umeen kopuru arabera.

Gaia aztertutik, Udalbatzak, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo eskolako haurrek Villabonako igerilekura joaten direnean, kiroldegiko gastuaren % 50-a Larraulgo Udalak bere gain hartzea, zerbitzu hau eskaintzen den bitartean.

BIGARRENA: Aipaturiko ordainketa burutzeko, fakturaren kopia eta igeri ikastera joaten diren haurren kopurua aurkeztu beharko delarik Larraulgo Udalean.

HAMABIGARREN PUNTUA

ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

12.1. “LEHIBERRI ZENTROAREN ALDEKO MOZIOAREN”, AZTERKETA.


Tolosaldea Garatzeneko administrazio kontseiluak ondorengo mozioa onartzea eskatzen du:

“LEHIBERRI ZENTROAREN ALDEKO MOZIOA

LEHIBERRI, Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntza Zentroak martxoaren 21ean zabaldu zituen bere ateak.

Zentro honek eskualdeko eragile sozioekonomikoen erreferentzia puntu izan nahi du: batetik, agente ezberdinen artean burutzen diren arlo guztietako proiektuak laguntzeko gune; eta bestetik, egun eskualdetik haratago eskaintzen diren baliabideak (formatiboak, teknologikoak,...) eskualdera erakartzeko balioko duen antena.

Gainera, enpresen garapenera bideratuta dauden ekimenen euskarri izatearekin batera, ondorengo egitasmoak aurrera eramateko lekua ere izan beharko du: enpresa eta lanbide eskolen komuneko proiektuak, enpresentzako informazioa eta sentsibilizazio ekintzak, nahiz ekintzailetasuna eta barne-ekintzailetasuna sustatzeko moduko instalazioak, nazioarteratzearen sustapena eta horretarako prestakuntza, kudeaketaren teknifikazioa, langabetuak laneratzeko sarbidea, eta abar luze bat.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Horrela, LEHIBERRI Tolosaldea Garatzenek sustatutako ekintza eta ekimen guztien euskarri izateaz gain, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak edota SPRIk enpresen eta industriaren garapenaren arloan dituzten eskumenen inguruan sustatutako programen euskarri ere da.

Lehiberri Zentroa, azken finean, Tolosaldean azken hamarkadan alor publikotik sustatu den proiektu estrategikorik garrantzitsuena da. Horren adierazle dira, erakunde publiko desberdinetatik proiektuak jaso dituen babesak eta laguntza.

Horren isla, eskualdeko udal, Gipuzkoako Batzar Nagusi zein Eusko Legebiltzarrak Madrilgo gobernutik hitzartuta zegoen milioi euroko diru laguntza ez etortzean eginiko eskaera eta Tolosaldea Garatzen emaniko babesak. Mozio horretako puntu batek horrela zioelarik hitzez hitz: “..... erakundeak, Garatzenek azken urteetan berrikuntzaren alde egindako lana goraipatzen du eta bide horretan sakontzen jarrai dezala eskatzen dio.”

Helburua, enplegua sortzetik haratago, eskualdeko biztanleen bizi kalitatea hobetzen laguntzea da horretarako eskualdeko politika integral eta bateratu bat sustatuz. Eskualdeko eragile guztiak, enpresa, langile, sindikatu, hezkuntza, udal zein bestelako administrazioen arteko lan komuna eta ildo bateratua bideratzeko tresna izan nahi duelarik.


Proiektu honen aurrekontua guztira 2.335.542 eurotako izan da.

Finantziarioari dagokionez hauek izan dira orain arte proiektuaren sustatzaileak:

- **Eskualdeko Udalak** 810.542 euro (horietatik 525.000 euro erakunde finantzarioekin hitzartutako kreditu bidez).
- **Espainiako Gobernua.** Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak: 1.000.000 euro
- **Gipuzkoako Foru Aldundia:** 525.000 euro.

*Kontuan izan behar da lehiakortasun ekonomikoaren sustapenaren alorrean EAEn erakunde eskumenduna **Eusko Jaurlaritza** dela, eta proiektuaren hasieratik aitortu dela bertatik Euskadiko Zientzia eta Teknologia Plangintzan marraztutako estrategiarekin bat datorrela Lehiberri Proiektua eta Zentroa. Honenbestez, **ezinbestekoa jotzen dugu, gainerako udal, probintzia eta estatu mailako erakunde publiko guztiek egin duten moduan, Eusko Jaurlaritzak ere Lehiberri Proiektua babestea eta bere ibilbidea behar den erritmoan egitea ahalbidetuko duten baliabide ekonomikoak bermatzea.***

Honela bakarrik lortuko da krisialdi ingurumari honetan eskualderako hil ala bizikoa den azpiegitura eta baliabide honek bere funtzioa behar bezala betetzea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Horregatik, Larraulgo udalak ondorengoa eskatzen du:

-Lehiberri eskualdearen garapenerako tresna dela aitortu eta alderdi politikoen arteko ika mikatik aldentzea.

-Eusko Jaurlaritzari Lehiberri proiektarekin bat egin eta duen finantziario beharraz ohartuta laguntza ekonomikoa ematea.

-Mozio hau, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundi eta Tolosaldea Garatzena igortzea.”

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Tolosaldea Garatzeneko administrazio kontseiluak aurkeztutako “Lehiberri zentroaren aldeko mozioa” bere osotasunean onestu.

12.2. “AZAROAREN 25a, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA” DELA ETA DEKLARAZIO INSTITUZIONALAREN AZTERKETA.


Ikusirik EUDEL-ek aurkezturiko Azaroaren 25a, Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela eta deklarazio instituzionala, non ondorengoa dioen:

“Azaroaren 25ean ospatzen den “Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna” dela-eta, sexu-erasoetan jarri nahi dugu arreta, batez ere, neska gazteek jasaten dituztenetan.

Azken urteotan, aldaketa nabarmenak izan dira emakumezkoen eta gizonzkoen arteko harremanetan. Hala ere, eta aurrerapenak gorabehera, askotan ikus dezakegu harreman hauek gure gizartean sustraiturik dagoen desberdintasunean oinarrituta eraikitzen direla oraindik ere, eta, ondorioz, eguneroko jarreretan agertzen dela, desberdintasun hori ugarituz eta betikotuz.

Hain zuzen ere, desberdintasun-testuinguru horretan sartu behar ditugu erasoak, izan ere, eraso horietako asko hain daude normalizatuta eta hain dira egunerokoak, neska gazteek nekez antzeman ditzakete.

*Zenbait **faktorek** neska gazteek sufritzen dituzten hamaika mikro eraso sexista erakusten dizkigute, baina, leunak direnez, normalizat hartzen ditugu; faktore horietako batzuk honakoak dira: nesken sexualizazio etengabea; emakumearen gorputza desira-objektu gisa ikustea; kontrola ezinezko sexualitatea duen gizonaren estereotipoa, bere*



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ekintzen erantzukizun orotik salbuesten duena; edota jazarpenaren naturalizazioa, hurbilketa sexualeko estrategia gisa.

*Emakumeenganako indarkeria errotik desagerrarazteko **lanak**, lehenik eta behin, agerian utzi behar ditu indarkeria mota horiek, desberdintasuna eta sexu-indarkeria sustatzen dituzten mezu sexistak antzemanaz.*

*Era berean, beharrezkoa da, erasoak prebenitzeko erabiltzen diren **estrategietan**, beldurraren bitartez euren segurtasunaren erantzule izatea saihesten duten mezuak helaraztea neska gazteei. Halaber, mezu horiek nesken jabekuntza sustatu beharko lukete eta sexualitate aktiboa izateko eskubidea aintzatetsi, betiere, neskak estigmatizatu gabe edo jarrera arriskutsuen erantzule egin gabe.*

*Funtsezkoa da **hezkuntza afektibo-sexuala** izatea, gazteek errespetuan eta berdintasunean oinarritutako sexualitatea gara dezaten. Beharrezkoa da eurekin berariaz hitz egitea, eraso mota oro prebenitzeko izan behar duten papera azpimarratuz, eta adieraztea euren jarrera sexisten eta euren testuinguruaren gaineko erantzukizuna izan behar dutela.*

Hori guztiori dela-eta, Udal honek:

KONPROMISOA HARTZEN DU, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, **berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso, parte-hartzaile eta koordinatua** garatzeko, arreta berezia jarri neska gazteek eta nerabeek jasaten duten indarkerian.


*Horretarako, **ekimenak abiaraziko ditu**, emakumeak, batez ere emakume gazteak, zaugarritasunari aurre egiteko eta jabekuntza sustatzeko beharrezkoak diren baliabideez hornitzeko. Aldi berean, jarrera sexistak prebenitzeko eta eguneroko mikro eraso sexisten kontrako jarrera aktiboa eta irmoa hartzeko lan egingo du.*

*Era berean, **GONBIT EGITEN DIEGU herritar guztiei, eta bereziki herriko neska-mutil gazteei**, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera, bai eta “Beldur Barik” gazteen arteko berdintasunerako prebentzio eta hezkuntza programan ere.*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Eudelek aurkezturiko “Azaroaren 25a, Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela eta deklarazio instituzionala” bere osotasunean onestu.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ondoren Alkate-Lehendakariak hitza hartzen du azaltzeko Gurako batzordeekin bilera izan zuela eta hauek esan zietela, Larraulgo eskolan obrak egitean, hauek, gastuaren % 40a finantzatuko dutela, duten dirua agortu arte, erabaki hau idatziz aurkeztuko dutelarik.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA